

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Zenbakien paradoxak, azalpen faltaren adierazle **ISIDRO ESNAOLA > 3**

GORRIXEN OKETA: Gorbeiaiko lubakiak eta etxolak. 1936ko gerraren arrastoak, aztergai **> 10**

2020ko abuztuaren 15a | XIV. urtea • 684. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



**XABIER SILVEIRA
BERTSOEN PLAZARA
BUELTATU DA**



Binarismo «paketatzaile» bat eta ez-leku feminista bat transexualentzat 04

«Sea Watch 4», elkartasunaren sinboloa 07

Norberaren karbono-aztarna murrizteko jarraibideak:
2. Dieta 10


Elkarrizketa: Xabier Silveira
Etxeberria, berriz bertsoen plazan 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 24



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Zenbakien paradoxak, azalpen faltaren seinale
- 08 **Ander Gortazar Balerdi:** Ausaz
- 09 **Mikel Zubimendi:** Kafe gozo hau, adibidez
- 13 **Amaia Ballesteros**
- 15 **Xabier Mikel Errekondo:** Turismo eredua: bertakoak eta «giriak»
- 15 **Joxean Agirre:** Kale antzerkia?
- 16 **Gorka Zozaia:** Lurraren lurrina
- 17 **Joana Garmendia:** Kendu maskarak
- 22 **Maitena Usabiaga Sarasua:** Orgasmoez



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Zenbakien paradoxak, azalpen faltaren adierazle

Ez naiz estatistika zalea. Daturen bat lortu nahi duzunean, ia ezinezko bihurtzen da behar duzuna topatzea. Eta daturen bat zabaltzen denean, askotan zenbakiak ez du berez islatu beharko lukeena islatzen. Esate baterako, “Ekintzailtza” indizeak sortu diren enpresa berrien kopurua soilik neurtzen du, eta, noski, horrek errealitatean zerikusi gutxi du ekintzailtzarekin. Aitzitik, gure gizarteak zenbakiak maite ditu. Nahiz eta askotan zentzu handirik ez izan, edozein datu azalpen osatu bat baino gehiago baloratzen da.

Dena den, batzuetan estatistikek gauza zelegebreak islatzen dituzte. Adibidez, AEBetako bigarren hiruhilekoko barne produktu gordinaren datuak, espero moduan, beherakada nabarmena erakutsi du, %32,9ko jaitsiera aurreko urtearekin alderatuta. Atalez atal ere nabarmena izan da beherakada. Igo den epigrafe bakarra diru sarrera pertsonalena izan da eta, gainera, %42,1 egin du. Aurrezkia ere hirukoiztu egin da, %25,7ra iritsiz. Aurrezkiaren igoera logikoa da: jendeak ez du kalera ateratzerik izan eta, horrez gain, etorkizuna nolakoa izango den argi ez dagoenean, joera nagusia zerbait gordetzea izaten da, badaezpada ere.

Baina diru sarrera pertsonalena harrigarria da. Are, astetik atera langabe kopurua neurrigabe igo denean. Bada, pixka bat arakatuz, soldata kopuru orokorra ez da hainbeste jaitsi. Horrek esan nahi du batez ere langile prekarioek galdu dutela lana. Gainontzekoek etxetik jarraitu dute lanean, edo etxera joan dira baina enpresaren kontura. Galdu diren lanpostuak eta galdu diren soldatak ez daude orekatuta, proportzioak ez du bat egingen. Dirudienez, Gobernuaren laguntza programa hain izan da indartsua galdutako soldatak konpentsatzea eta gaintitzea lortu duela. Beste gauza bat da nola banatu den laguntza hori. Horrela, lanpostuen galera handia izan den une batean, langileen diru sarrerak hazi egin

dira. Paradoxikoa bada ere, neoliberalismoaren eredu den estatu batean gertatu da hori.

Europar ere baditugu antzeko eredu neoliberalak. Harrituta geratu naiz ikusi dudanean Irlandako errentaren banaketa: langileen zatiak %28ko langa ozta-ozta gaintitzen du. Ideia bat izateko, gaur egun, Europako estatuetan, gutxi gorabehera, errentaren erdia –pixka bat gutxiago– langileen eskura doa, eta, beste erdia, enpresen eta Estatuaren artean banatzen da: enpresen zatia etekinak dira eta, Estatuaren zatia, zeharkako zergak ekoizpenari emandako subentzioak kenduta. Irlandako datua Europako batez bestekoa baino hogeit hamar puntu beherago dago eta bertako soldatak ez dira Europako baxuenak... Hori asko da. Greziako batez bestekoa, adibidez, bost puntu handiagoa da. Estatu espainoleko

Irlandak multinazionalen etekin nagusiak erakartzea lortu du. Irabaziotatik ez du apenas zergarik kobratzen, baina, aldiz, Estatuaren kontabilitatean agertzen dira

datua, berriz, Europako batez bestekoaren parean dago eta, Estatu frantsesekoa, azkenik, guztien artean altuenetariko bat da (%52). Errenta banaketa horretan, Irlandako Estatuaren parte ere Europako txikiena da eta zergak ere ez dira Europako baxuenak. Modu berean, aurrekontu publikoaren pisua barne produktu gordinaren %25 besterik ez da. Europako hurrenkeran, Errumania da hurrengo (%31).

Badirudi azalpena Irlandako zerga sisteman dagoela. Sistema horrekin, Irlandak multinazionalen (Google, Apple eta enparauak) etekin nagusiak erakartzea lortu du. Irabaziotatik ez du apenas zergarik kobratzen, baina, aldiz, Estatuaren kontabilitatean agertzen dira, eta atal horrek zenbaki guztiak distorsionatzen ditu. Zenbakien paradoxak. •

INFILTRATUAK

Binarismo «paketatzaile» bat eta ez-leku feminista bat transexualentzat

 **JENDARTEA** / Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Denbora luzea daramate transexualek euren eskubideen alde borrokan, eta sarritan feminismoarekin aliantzak sortu dituzte borroka horren mesedetan. Bada feminismoaren sektore bat, ordea, ez duena onartzen trans pertsonen parte hartzea «emakumeena» deritzen borrokan. TERF esaten diote feminismoaren korrante horri.

Beth Elliot emakume transexual, lesbiana eta artista agertokira igo zen abastera 1973ko West Coast-eko (AEB) Lesbianen Konferentzia Feministan. Lesbianen talde batean milita-

tu zuen urte luzez, eta jardunaldietako antolakuntza batzordean zegoen. Hala eta guztiz ere, agertokira igo zen lehen gauean, zenbait emakume taldek gaitzetsi egin zuten Beth Elliottten presentzia, gizonetako bat zela esanez, barregarri utzi zuten, eta indarkeriaz

Transen askapenerako ekintzaileen erretratua Stonewall Inn (New York) tabernaren aurrean, uztailaren 16an.
Stephanie KEITH | AFP

gerturatu ziren, harengana, agertokira.

TERF akronimoak (*Trans Excluding Radical Feminism*, ingelesez) feminismo erradikal trans baztertzailea ordezkatzeko du. Adiera horren erroak 2000ko hamarkadaren amaieran sortu ziren, baina 1970eko AEBetako zirkulu feminista batzuetatik eratorri da; izan ere, une hartan trans pertsonen alde egiten zuten feministak eta transexualitatea gaitzesten zuten emakume taldeak bereizteko termino baten beharra azaleratu zen.

Antitrans feminista askok iraina dela esaten dute gaur egun, eta nahiago dute «generoarekiko kritikoak» direla esan, nahiz eta beste askok beren sinesmenen deskribapen



zehatz gisa ikusten duten TERF akronimoaren adiera.


1970eko hamarkadaren hasieran, «generoarekiko kritikoak» ziren taldeek trans emakumeak mehatxatu zituzten, emakumeen eta lesbianen eremuetan sartu zirelako, feminismoan militatzera. Hau da, TERF akronimoaz izendatutako horiek ez zituzten emakumetzat hartzen emakume transexualak eta emakumeentzat soilik ziren espazioetatik kanpo uztea eskatzen zuten, feminismoaren “Troia” zirela irizten baitzuten, infiltratuak.

Finean, emakume eta gizon izatearen ideia esentzialista eta biologizista bat defendatzen dute TERFek, sinesten baitute genitaltasunari eta hortik eratorritako rol sozialei lotutako identitateak direla.

Queer teoriak, sinpleki esanda, genitaltasunari begiratu beharrean, generoari dagozkion rol kulturalak aztertu eta gaitzesten ditu, eta transgenero eta zisgenero pertsonen aliantzak bultzatzen ditu. Teoria horren subjektu politikoak, emakumea bere esanahi soil eta biologikoan bainoago, generoari eta sexuari buruzko arauak hausten dituzten pertsonak dira. Izan lesbianak, gaixoak, transak, beltzak, pertsona ez-binarioak edo intersexualak, beste askoren artean. Hori dela eta, TERFen ustez, *queer* teoriak feminismoaren subjektua, emakumea, desitxuratu egiten du subjektu politiko gisa.

PARASITOAK

TERF ideologiak garrantzi handia hartu du Erresuma Batuan. Bertan, genero pentsamendu kritikoaren aurka egindako erasoak, sarritan, «emakumeak isilarazteko» saiakeratzat



Orain hamar urteko elkarretaratzea Gasteizen, transexualen patologizazioaren kontra.

Raul BOGAJO | FOKU

hartzen dira. Sheila Jeffreys feminista lesbiana Erresuma Batuko Parlamentuan izan zen 2018ko martxoan, eta adierazi zuen trans emakumeak «parasitoak» direla «jazarrita dauden gorputzak okupatzen dituztelako». Bestelakoak ere esan izan ditu, kasurako, irriti programa batean adierazi zuen transa izatea *blackface* egitearen parekoa dela (zuriek aurpegia beltzez margotzeko praktika). Adierazpen horiek, ezin bestela, biolentzia eta jazarpenaren testuinguruan jarri behar dira, arriskutsuak izan baitaitezke trans pertsonentzat.

2019an National Sexual Violence Resource Center erakundeak (sexu indarkeriaren prebentzioan lan egiten duen irabazi asmorik gabeko erakundea) argitaratutako datuen arabera, «trans pertsonen ia erdiek (%47) sexu erasoak jasan dituzte» AEBetan. Gainera, erakundearen esanetan, «genero adierazpenaren ondorioz jazarpena, sexu indarkeria edo indarkeria fisikoa jasan zutenen erdiak bere buruaz beste egiten saiatu ziren».

PSOEREN IDATZIA

Feminismoan gutxiengo batek osatzen duen arren, 1970eko hamarkadako AEBetan erroto zen mugimendu horrek indarra hartu du, eta, hori dela eta, trans pertsonen aurkako diskurtso eta jazarpenak babesa eskuratu du herrialde ugarietan, are gehiago Twitter eta antzeko sare sozialetan.

Ekainean, PSOEk komunikatu bat argitaratu zuen. Komunikatu horren arabera, «gero eta eztabaida handiagoa dago feminismoan funtsezkoak diren kontzeptu batzuk, hala nola sexua eta generoa, nola erabili behar diren zehazteko».



Idatziak honako hau ere adierazten zuen: «Badira esparru akademiko eta aktibistan lekua irabazten ari diren teoriak (zehazki, *queer* teoria), sexu biologikoa ukatzen dutenak, eta, beraz, emakumeen errealtatea lausotzen dutenak. Sexua ukatzen baldin bada, ukatu egiten da gertaera biologiko horren arabera neurtzen eta eraikitzen den desberdintasuna». Alderdiaren beraren idazkaritzeari eta bozeramaileei zuzendutako dokumentua Jose Luis Abalos Antolakuntzako idazkariak, Carmen Calvo presidenteorde eta Berdintasunerako arduradunak eta Santos Cerdan Lurralde Koordinazio-ko idazkariak ere sinatu zuten.

Hala, PSOEko kide batzuek dokumentuan argudiatzen zuten, alderdia aurka agertuko litzateke «pertsonaren sentimenduek eta adierazpenek ondorio juridiko osoak dituztela aldeztu duten jarre-

aurrean», genero identitatearen autodeterminazioak «ez baitu arrazionaltasun juridikorik», haien ustetan.

Ildo horretan, idatziak bat egiten du ideia honekin: trans pertsona bat maila juridikoan egon dadin, «transexualitate egoerak egonkorra izan behar du»; eta aipatzen du Podemosek, gobernuak duen alderdiak, Jose Luis Rodríguez Zapateroren legegintzaldian PSOEk bultzatutako trans legeari 2018an egindako zuzenketa.

PSOEko sektore batek adierazi zuenez, «*queer* aktibismoak emakumeak subjektu politiko eta juridiko gisa lausotzen ditu, eskubideak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politika publikoak eta mugimendu feministaren lorpenak arriskuan jarritik».

Alabaina, PSOE ez da TERF ideien alde egin duen espainiar alderdi bakarra. Lidia Falcon Espainiako Alderdi Femi-

nistaren sortzaileak artikulua idatzi zuen PSOEren idatzia txalotzeko. Haserre agertu zen Podemosen proposamenarekin, zeinak defendatzen baitu «Falconen esanetan» ez dagoela sexu biologikorik, eta pertsonak erabakitzen duela emakumea edo gizona izatea. Hala, «jaiotza agiria eta nortasun agiria legez aldatzeko aukera ematen du». Hori guztia, «trans lobbyaren disparteei esker», zioen Falconek.

Artikulu hori, zeina, bide batez esanda, Hazte Oir erakun-

Emakume eta gizonen ideia biologizista bat defendatzen dute TERFek, sinesten baitute genitaltasunari eta hortik eratorritako rol sozialei lotutako identitateak direla

«Queer» teoriaren subjektu politikoa emakumea bainoago, generoari eta sexuari buruzko arauak hausten dituen pertsona da, ondorioz, transexualak barne hartzen ditu

TERFen kontrako kartel bat, ekainaren 28ko Iruñeko manifestazioan. Jagoba MANTEROLA | FOKU

de ultrakatolikoari lotutako webgune batean idatzi zuen Lidia Falconek, Vox alderdi ultraeskuindarrak goraipatu zuen Twitter bidez.

«EZ DA AUKERA BAT»

Euskal Herrian ere, gutxi baina badira zenbait pertsona TERF mugimendua babesten dutenak. «Sare sozialetan jada sumatu ditugu korrante horien aldekoak eta, egia esanda, arduraz begiratzen diogu korrante transfobo horri, baina gure indarrak gure seme-alaben errealtatea ikusarazten eta gizarteari jakitera ematen bideratzen jarraitu nahi dugu, lan handia dagoelako oraindik egiteko», adierazi du Edurne Koch Naizen elkarteko kideak.

Haur eta nerabe transexualen eskubideen alde lan egiten duen elkarteko kideak iritzi du TERF mugimenduak «ultrek autobus laranjarekin ateratako mezu bera» dakarrela, Hazte Oir erakundearena. «Zuzen-zuzenean egiten dute gure alaben kontra. Hemen arazoa da jende askok ez duela gure alaben errealtatea ulertzen, pentsatzen dutelako neska izatea aukeratu dutela. Ez gara nekatuko esaten neska edo mutila izatea ez dela aukera bat, norberak bere buruarengan duen pertzepzioarekin daukala zerikusia, norberak bere burua nola identifikatzen duen», adierazi du.

«TERF mugimendu transfo- boak eta feminismoaren alde batek ulertu behar duena da transexualitate egoeran dauden neskek, beste neskek bezala, ez dutela nahita erabakitzen beraien sexu kategoria. Ezagutze, aurkitze eta onartze prozesu konplexua da, eta, onartu ezean, sufrimendu handia eta konpenezina sortu daiteke», azaldu du Kochek.



Hanna WALLACE | MUGARIK GABEKO MEDIKUAK

IKUSMIRA

«SEA WATCH 4», ELKARTASUNAREN SINBOLOA

Mugarik Gabeko Medikak (MSF) eta Sea Watch gobernu kanpoko erakundeak elkarrekin itsasoratuko dira, Mediterraneoan olatuen artean pertsonak etengabe hiltzen jarraitzea eragozteko xede. Uneotan ez dago erreskate ontzirik bertan eta, koronabirusaren aitzakiapean, Europak «erreskate lanak erabat mugatu» dituela salatu dute bi erakundeek. «Ezin dugu onartu indarreko politika arrazisten eta axolagabeen ondorioz etengabe pertsonak hiltzea. Gure esku dagoen guztia egingo dugu hori ekiditeko», ohartarazi du Oliver Behn MSFko Operazio buroak. Datorren egunetan, «Sea Watch 4» ontzia itsasoratuko da. Otsailean, Alemaniako Eliza Protestanteak, beste batzuen artean, bultzatutako United4Rescue koalizioak eta Sea Watchek ikerketa ozeanografikoak egiteko erabiltzen zen «Poseidon» ontzia erosi eta erreskate lanak egiteko egokitu zuten. «Sea Watch 4» izena eman diote. «Elkartasunaren sinboloa da. Gizarte zibilak Europari bidaltzen dion mezua ere bada: hamaika oztopo jartzen badizkigute ere, ez ditugu erreskateak albo batera utziko», berretsi du Behnek. Lotsagarritzat jo du etorkinak atxilotu eta torturatuak izan ohi diren Libiara bidaltzea berriro. Aina Lertxundi



Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Ausaz

Duela urte batzuk aplikazio bat sortzeko ideia bikaina otu zitzaidan. Tamalez ez nuen, Jeff Bezosek bezala, ez garaje suburbanorik, ez eta gurasoen 240.000 dolarrik ere -ez eta negozio-eredurik ere, dena esan beharra dago-. Ideia, ez harrigarriki, ezerezean geratu zen. Egunaren arabera, aplikazioak izena zuen “Ausaz” edo “Random Walk” -nire euskaltzetasunaren irmotasuna nahi baino ahulagoa den seinale-, baina sakoneko ideia bera zen: paseo aleatorioak.

Random walk kontzeptua existitu existitzen da: ausazko urratsak egitearen ondorioz ateratzen den ibilbidearen formalizazio matematikoa da. Adibidez, likido edo gas batetik bidaiatzen ari den molekula baten bidea, edo animalia batek janari bila egiten duena. “Ausaz” aplikazioa, bide beretik, hiriak -gertukoak, urrunagokoak- helburu jakinik gabe deskubritzeko gonbita zen, ia-ia aleatorioki, ausaz. Hiri-turismoak auzo eta kale zehatz batzuetara bultzatzen gaitu sistematikoki, eta “Random Walk” aplikazioak leku itxuraz interesik gabekoak bisitatzeko balioko luke. Posible al da turismoa deszentralizatzea?

Aplikazioaren interfazeak galdera batzuk egingo lizkioke erabiltzaileari, esaterako, «Zenbat denbora-ko paseoa egin nahi duzu?» edo «Garraio publikoa ala bizikleta erabili nahi duzu» edo «Zer zailtasun mailako ibilaldia egin nahi duzu?». Eran-tzunen arabera ibilbide bat proposatuko lioke, ausaz, bai eta ahots ederrez deskribatuko ere, autoetako GPS nabigatzaileek nola: «Hartu 13. autobusa X geltokian». Handik hamabost minutura, agian, «jaitsi hurrengo geltokian» agintzeko, eta, ondoren, «bidegurutzean hartu gora doan kalea» edo «elizara iristean

hartu bidezidorra»... Zilegi litzateke, noski, aplikazioari kasu zipitzik ez egitea, eta, horrek, berez, sariren bat mereziko lukeela uste dut, baina esan dizuet ez nuela negozio-eredurik.

Funtsean, «Pokemon Go» hura bezala baina Pokemon-ik gabe. Total, ze nezesidade. Hiriak bisitatzen ditudanean maiz egiten dut: plano a begiratu, intuizioz inguru bat aukeratu eta hara joan, aurreiritzi handiegirik gabe. Begiratu nahi duenarentzat bada beti zerbait eta interes turistikodun tokietan baino jende dezente gutxiago izan ohi da. Baiki, abantaila handi bat covid19-aren garaiotan.

Hau guztia diot bi arrazoiengatik. Lehenengoa, bista-koa dena, ez dagoela inongo aplikazioaren beharrik paseo (sasi-) aleatorioak emateko. Bigarrena, aurreratu egin zaizkidala eta aplikazio hori izan badela: “Randonautica” izena du eta, nire harridurarako, modan omen dago “Tiktok” aplikazioaren erabiltzaileen artean -hau ere azal diezadala norbaitek faborez-. Aplikazioak bere inguruko koorde-

natu sorta bat ematen dio erabiltzaileari, antza denez bene-benetan aleatorioa, eta bertaratzeko eskatzen dio, ondoren argazkiak eta hausnarketak parteka ditzan.

Aplikazioa jaitsi dut eta proba egin dut. Klaseertain-altuko auzo batera bidali nau, etxebizitzak eta bulegoak. Auzoak sarrera bakarra du, librea baina topatzen zaila, pertsona arrotzak nahi ez balituzte bezala. Ez dakit zortea izan dudana, kontuan hartuta “randonauta” batek -hala omen dute izena- gorputziak aurkitu zituela maleta batean, plastikotan bilduta. Gutxiagorekin konformatzen naiz ni, adibidez, inbento honen negozio-eredua deszifratzen hasteko pista soil batekin. Adiago egon nadin, hurrengo batean. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Kafe gozo hau, adibidez

Nolakoa izango da etorkizuna? Izango al da etorkizunik? Lagunarteko hizketaldietan-eta sumatu dudanez, bi aukera dabilta dantzan. Baikor direnentzat, egungo krisia pelikuletako une bateko etenaldia bezalakoa da. Atsedenaldira bur bat egongo da, min pixka batekin, hori bai, baina zeluloidea zinta itsasgarriarekin konpondu eta gure bizitzaren istorioa ikusten jarraituko dugu pelikula utzi genuen toki beretik. Ze, gerra edo lurrikara erraldoi bat bezalako krisiekin ez bezala, koronabirusarenak ez ditu tresneria eta azpiegiturak hondatu. Eta, gainera, memoria oso txarra dugunez, aise bueltatuko gara lehengora, lehen bezala kontsumitzera, lehen genituen amets materialistekin gure beharrak kontentatzera.

Gero, azti plantakoak daude, zoritxar igarleak. Horientzat mundua amildegia ertzean zegoen krisialdia etorri orduko. Ez genituen 2008ko krisi ekonomikoaren lezioak ikasi. Koronabirusak orain azken bultzada eman digu amildegirantz, pobrezia, langabezia, gatazka eta gerraz osatutako beharako kiribil baterantz. Lagun horientzat, krisiak kapitalismoa lurperatu eta egoera berria ekarriko du, nork bere burua aski izateko aproposa, ingurumena hobeto gobernatzeko modukoa, justizia soziala ekarriko duena. Eta, azkenean, airea garbia izango da eta txoriek kantatu egingo dute.

Susperraldi ekonomikoa ziurtzat jotzen duten pronostiko asko kontsumo ekonomiaren “errebote” azkar batean oinarritzen dira. Diru gutxiago izango dugu patrikan, estutu beharko da gerrikoa, baina jokaera zaharrak berreskuratuko ditugu. Ez dirudi oso sinesgarria. Gerrek eta beste krisi batzuek erakutsi diguten historiak ez du hori esaten: etenak ez dira une bateko eten, lehendik zetozen joerak anplifikatu eta bizitza berriz ordenatzen duten indar biderkatzaileak dira.

Normalitate berriaz hitz egiten dugunean, erraz ahazten dugu normalitate zaharra behinola berria

izan zela. Etxe propioa izatea, kanpoan bazkaltzea, opor luzeak, gutxienez dutxa bero bat egunean, nahi bestetan arropa aldatzea, horiek guztiak ez dira berezko giza eskubideak. Izatez, gure artean azaldu baino lehen, salbuespentzat jotzen ziren. Gero egin ziren “normal”, eta, Historia, “normal” askoren segida bat baino ez da. Badatoz eta badoaz, baina ez dira sekula irabazten eta gastatzen dugun diruaren aldaketan ondorioak. Politikak eta botereak lagundutakoak, bultzatutakoak dira. Kafe gozo hau, kafearekiko eta azukrearekiko gure gustua, ulergaitza izango zen inperioen demasiak, esklabotza eta plantazioak ez balira egon. Ez legoke etxe propiorik, orotariko etxetresnekin, bainu modernorik, auto propiorik, ez balira egin hori bultzatu zuten gerraosteko politika publiko haiek.

Etxe propioa, kanpoan bazkaltzea, opor luzeak, dutxa beroa, ez dira berezko giza eskubideak. Gero egin ziren «normal», eta, Historia, «normal» askoren segida da

Eta pentsatzen dut, oraindik pil-pilean, garapenean dagoen normalitate berria, gure instituzioek, herriek eta hiriek, guk geuk bultzatu nahi dugun bizitza estiloaren arabera izango dela. Zer nahi dugu? Eten zen toki eta unetik film bera ikusten jarraitu? “Errebo-tea” ala norabide berria? Bide berriak ala bidegorriak? Balkoiak eta ortuak etxebizitza forma berrien parte izatea ala merkatuari uztea galdera horien erantzuna? Bigarren eta hirugarren etxebizitzaren jabeen pribatasun eskusiboa defendatzen jarraituko dugu?

Hainbeste eta hain larriak dira galderak! Hain da luzea eta hain ikusgarria eztabaida publikoa, bisio politikoa eta lidergoa eskatzen duten aukeren zerrenda! Eta Euskal Herrian, zoritxarrez, orain arte, oso gutxi ikusi dugu horri buruz. •

GORRIXEN OKETA IKERGAI

Batailoi anarkistek gailurrean utzitako etxolak eta lubakiak zundatzen jardun da ikertzaile talde bat

 JENDARTEA / Nerea GOTI

EHUko ikertzaile talde bat Oketan eta Burbonan izan da 1936ko gerrako arrastoak aztertzen. Gudu-zelai garaienetak hartan batailoi anarkistak egon ziren nagusiki 1936ko abendutik 1937ko apirilera artean. Haiek eraikitako etxolak, lubakiak eta tiro postuak aztertuz, gertakari haiek, protagonistak eta zuten bizimodua gogora ekarri dituzte.


Oketari “Gor-beia Txiki” ere esaten diote inguruan. Zigoitian kokatuta dago Gorbeiako mendilerroko gailur hau eta 1.031 metro ditu. «Arabatik ikusita, Gorbeia bera

baino aurrerago dago, lehenago, eta antzeko gailurrak dira, nahiko borobilak, ez dago zuhaitzik... beraz, bista izugarri ona du Arabako Lautada osoa bertatik kontrolatzeko, eta hori zen kontua», adierazi du Josu Santamarina EHUko ikerlariak, 1936ko gerran Oketak zeukan garrantziaren inguruan.

Ikertzaileak, Oketako gailurrean, 1936ko gerraren aztarnak aztertzen.
EHU

Uztailaren 18ko militarren kolpearen ostean, militar altxatuak eta erreketek izan ziren Oketan. «1936ko azaroko azken egunean, Euzkadiko Gudarosteak erasoari ekin zion ‘Legutioko Gudua’ esaten dioten gertaeran», oroitu dute EHUko kideek. Gasteiz helburu zuen erasoaldi hartan «errepublikazaleek ez zuten arrakasta handirik lortu eta milaka zauritu eta hildako izan ziren», baina «gutxienez Oketa bereganatzea lortu zuten». 1936ko abendutik 1937ko apirilera bitartean Oketa gorrien gailurra izan zen, batailoi anarkistena, nagusiki.

Gertakari horien aztarnen zundaketa egin dute azken asteetan eta ez da aurkikuntza nabarmenik egin baina, frontearen beste puntu batzuetan



eginiko ikerketetan bezala, «zundaketa diagnostikoak dira, leku hauek nolakoak ziren baloratzeko, elkarren artean konparaketak egin ahal izateko...» eta Oketa, gainera, gerrako gudu-zelai altuenetako bat izan zen, Santamarinak zehaztu duenez. «Gerra Zibileko ohiko objektuak» aurkitu dituztela kontatu du: sardina lata bat, bota batzuen zola, bala-zorro aleman bat, arantzadun alanbrea...

«Sorpresa izan da, uste baikenuen askoz objektu gehiago aurkituko genuela okupazio mota ezberdinak izan zirelako Oketan: hasieran frankistak, gero denbora luzez miliziano anarkistak eta 37ko apirilean frankistek okupatu zuten berriro eta tartean borrokaldiak izan ziren; beraz, horrek aztarna gehiago utziko zuela espero genuen».

ETXOLAK ETA LUBAKIAK


84 urte pasatu dira eta gertaera haiek Oketa mendira eta Zigoitiko udalerrian dagoen Burbonara eraman ditu ikertzaileak. Ekinenak Lakuako Gobernu Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren finantzaketa izan du, baita Ondare Eraikiari buruzko Ikerketa Taldearen baliabide teknikoak ere. Guztira, lauzpabost ikertzaile jardun dira lanean, arkeologo profesionalak, irakasleak... eta Zigoitiko Abadelaueta elkarte etnografiakoaren laguntza izan dute.

Aurkikuntzen atalean gauza handirik topatu ez badute ere, lanen helburu nagusia «Gerra Zibilaren aztarnak ikertzea» zen eta proiektuaren «alde garrantzitsuena arkitektura zen, es- trukturak, paisaia bera».

Oketan 20 bat etxola eraiki zituzten gudariek, gailur hartatik etsaiaren mugimenduak kontrolatzeko eta erasoaldiei aurre egiteko. Postu hark gerran zuen



Oketako ondarearen gainean egindako zundaketa lanetan ikertzaileek hartutako irudietako bat. EHU



Ikerlariak, Burbonan lanean. EHU

esanahiaz, Santamarinak dio euskal frontearen parte nagusia Bizkai eta Gipuzkoa arteko mugan zegoela, Eibarren, Elgetan, Arrasate inguruan, Legution... «Gorbeialdeko mendiak babes natural gisa erabili zituzten; mendilerroa harresi moduko zerbait zen tropa frankisten aurka», zehaztu du.

Oketako gailurrean egin zituzten etxolek «gerrako herrixka» bat osatzen zuten, mila metroko garaieran. Itxuraz «Burdin Aroko kastro» baten antza zuela diote. «Etxolak harrizkoak dira, nahiko prekarioak; duela 3.000 urteko zeozer izan zitekeela ematen du, baina ez dago kalerik, lubakiak dira, etxolak komunikatzen dituztenak, ez dago kanpoko harresirik, dena dira lubakiak», azaldu du Josu Santamarinak.

«Paisaia nahiko berezia da, zeren gerra moderno baten zantzuak ditugu, lubakiak esaterako, baina etxolak oso antzinaroko itxurakoak dira; gainera, krater pila bat dago inguruan, Oketa mendia apirileko lehen egunetan hiru aldiz bonbardatu baitzuten, eta egun batean 150 bomba jaurti zituzten bertan».

HOTZA, TXITXIRIOAK ETA BIZARRAK

Miliziano haien bizimodua irudikatzean, Santamarinak adierazi du batailoi bakoitzeko 600 bat soldadu izango zirela, baina gailurraren inguruan 150en bat ibiliko zirela postu ezberdinetan, lubakietan zehar... eta, seguru asko, txandakatuz joango zirela. «Oketa mendia nahiko potentea da, magaletan atze-guardian kanpalekuak egongo ziren eta gailurreko etxoletan ehun eta piko miliziano», zehaztu du.

San Andres egunetik 37ko apirilaren 5era arte egon ziren han; negu osoa pasatu behar izan zu-

MILIZIANO ANARKISTEN EGUN HOTZ HAIETAZ CECILIA G. DE GUILARTEK IDATZITAKOA

ten, beraz. Kokapena ere aztertu beharreko atala zuten ikertzaileek, maila altuko lekuak direlako biak, bai Oketa bai apur bat beharago dagoen Burbona.

Hotz izugarria egingo zuen bertan negu gorriko hilabetee-tan. Etxolak, gainera, iparraldeko aldean eraiki zituzten. «Hegoaldean frankistak zeuden; beraz, tiroetatik babesteko egin zuten», esplikatu du Santamarinak. Garaiko kronikek etengabeko euriteak ere aipatzen dituzte.

Oketatik gertu Ubide herria zuten. «Seguru asko, Ubiden sukalderen bat izango zuten, eta prestatutako lapikoak mendira eramango zituzten. 1936ko gerran txitxirioak sarritan aipatzen direla dio Santamarinak. «Antza, gerra hasi zenean ontzi mexikar bat heldu zen Bilboko portura txitxirioz beteta» eta horiek gudarien egun askotako arrantxoak izan ziren.

Lapikoak mando gainean igo-ko zituzten. Oketako bidean errepide bat eraikitzen hasi zen, baina ezin izan zuten bukatu. Errepideari “Gorrixen bidea” esaten omen diote oraindik. «Batailoi diziplinarioetako soldaduek egin zuten hori eta seguruenik logistikarako bidea izango zen, orduan hain ohiko elikagaiak ziren sardina latak, esne kondentsatua, haragi latak... garraiatzeko».

Cecilia G. de Guilarte kazetari tolosarrak jaso zituen bizimodu

hari buruzko hainbat datu, bere kroniketan. «Oketa nahiko gortorleku anarkista izan zen», nabarmendu du Santamarinak. Batik bat, anarkistak ziren, Durruti batailoia, Isaac Puente, Sacco y Vancetikoak... «Garai hartan euskal anarkismoak indarra zeukan eta horrek ere interesa zuen ikerketaren ikuspuntutik».

«Badakigu martxoaren 31n Mola jeneralak zuzenean gidatu zuela euskal frontearen apurketa. Apurketa hori Legution gertatu zen, Oketatik oso hurbil, beraz, eta hegazkin alemanek hiru egunez bonbardatu zuten; apirilaren 5ean milizianoak ebakua-tu, eta frankisten postu aurreratu bilakatu zen.

Ehun metro beherago, Burbonan, 1936ko gerrak aztarna berezia utzi duela diote ikertzaileek. Askoz leku lasaia goa da, pagoz inguratua. Bertan lubaki luze bat dago eta ezohiko egitura hori. Metrailadore habia bat da; fusila prest eta adi egon behar zuten zaintzaile haiek erasoaldia noiz iritsiko. Bunker moduko egitura horiek Burbonan egurrezko oho-lekin, xaflekin eta makilekin eginda daude. «Bunker ekologikoa deitzen diogu txantxetan, hormigoizkoa izan beharrean, egurrez eta lurrez egindakoa delako», kontatu du Santamarinak. Bere hitzetan, zulo bat ematen du, baina konplexuagoa da eta «oso interesgarria» ondarearen ikuspuntutik.

Oketan, sigi-saga formako lubakiak, tiro-postu aurreratuak, babeslekuak eta harrizko hainbat etxola kontserbatzen dira gailurrean, mila metrotik gorako garaieran.

«Burbonan beste estrategia bat hartu zuten, hemen ez zen erraza harria erabiltzea» eta ‘bunkerra’ lur eta egurrarekin egin zuten, eta kontserbatzen da; horregatik da interesgarria

1937ko urtarrilaren 28a da, eta Cecilia Garcia de Guilarte kazetaria Isaac Puente batailoian dago bisitan; Oketa aldean, beraz. Presoak lanean ari dira bidean; aldapa gogorra deskribatzen du, hezetasun handia eta izozteak. Kontatzen duenez, haize gogorrak hotza areagotzen du eta lokatzez beteriko bidean ordu eta erdi luzeko igoeraren ondoren hasi dira batailoiko lehen postuak ikusten.

Kronikan dioenez, etxolak eta lonazko denda batzuk ikus daitezke; 18 egun daramatza Isaac Puente batailoiak posizio horietan, eta komuna baten modukoa osatu dutela dio. Gizon «prehistorikoen» antza dutela idazten du: asteetako bizar luzeak eta hotzari aurre egiteko ardi-larruak daramatzatela.


Han ikusitakoari buruzko kronikan idatzita utziko zuen milizianoei luze egiten zaiela itxaronaldi estu hori. Murua herrira hurbildu zen kazetaria eta bueltan, kanpamentuan, hain ezagunak izan omen ziren txitxirioen arrantxo horietako bat agertzen da Cecilia G. de Guilarteren kontakizunean.

Handik hilabete eskasera Oketako lurretara itzuliko da kazetaria, otsailaren 16an, hain zuzen ere. Eurite handietako egunak dira eta lokatzez beterik dago ingurua. Sacco y

Vancetti batailoari egin dio bisita bigarren honetan. Etengabeko euriak goiko posizioetarainoko igoera zailtzen duela dio. Kronika horretan, etsaien armadako soldadu bat errepublikaren aldeko lerroetara pasatu dela kontatzen du.

Magaletan lokatz artean labain egiten dute. Mendiko botak putzu batean zikindu eta bestean garbitzen direla dio, eta ez dela «kexarik» entzuten. Beste aldetik etorri berri den lagun bat aurkitu dute bidean, eta, dioenez, espartin bakar bat du. Kontatzen duenez, Bilbokoa da gaztea baina Logroñon zegoen, Bailen Erregimentuko laugarren konpainiako kaboa da. Goizaldeko hiruretan irten zen Logroñotik eta iluntzeko zortziak dira Oketara heldu denean, hemezortzi ordu. Pedro Martinez Garcia du izena. Kronikan beste izen propio batzuk aipatzen ditu: Eugenio Vargas komandantea, Ormazabal tenientea...

Pasarteok Julen Lezamizek eta Ana Urrutiak idatziriko “Escritos de G. de Guilarte. Segunda República y Guerra Civil” liburuan aurki daitezke. Anarkista tolosarrak gerra korrespontsal gisa lan egin zuen “CNT Norte”, “Frente Popular” eta “El Liberal” garaiko hedabideentzat.



Cecilia G. de Guilarte kazetariari buruzko liburu baten azala.

Jon HERNÁEZ/ FOKU

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS



AZTARNA EKOLOGIKOA

Unai Garcia Ingurumen Teknikaria (Grunver Sostenibilidad)

Klimaren desoreka atzeraezina ekiditeko 2050ean berotegi-efektuko gas emisio garbiak zero izan behar direla onartu zuten Nazio Batuek Parisko Hitzarmenean. Hala ere, helburua lortzea gaur existitzen ez diren teknologia garbiak garatzearen esku utzi zuten. Horregatik, eta hain epe luzerako xedea ezartzearen arriskua ikusita, Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak (IPCC) itu zehatz eta hurbilago bat definitu zuen: 2030erako emisioak %45 murriztu behar ditugu bide one-tik goazela bermatzeko.

Hau da, estatuko gutako bakoitzak iaz emititu genituen 7,4 tona CO₂ bal-etik 3,33 ezabatu behar ditugu hamar urteren buruan.

Hau da, estatuko gutako bakoitzak iaz emititu genituen 7,4 tona CO₂ bal-etik 3,33 ezabatu behar ditugu hamar urteren buruan.

JANARIA EKOIZTEAREN AZTARNA

Klima-aldaketaren aurkako borroka karbono emisio baxuko energia sorkuntza eta garraioan jartzen du arretarik handiena, baina zazpi mila milioi biztanle baino gehiago elikatzeaz arduratzen den sektoreak ere eragin handia du ingurunean.

Berotegi-efektuari dagokionez, janaria ekoizteak urtero isurtzen diren berotegi-efektuko gasen %26 hartzen du. Batetik, abereen (behiak gehienbat) digestio prozesuak metanoa askatzen du atmosferara, planeta berotzen CO₂a baino 25 aldiz eraginkorragoa den gasa, alegia; eta guk zuzenean kontsumitu edo abereak elikatzeako laboreen ekoizpenean erabiltzen diren onga-

Norberaren karbono-aztarna murrizteko jarraibideak: 2. Dieta

Janariaren ekoizpena urteroko berotegi-efektuko gas emisio globalen %26ren erantzule da. Aurreko asteko garraioari buruzko jarraibideen ondoren, gaurkoan dietaren bidez norberaren karbono-aztarna nola murriztu dezakegun aztertuko dugu.



Tokiko eta sasoiko produktuak, Durangon. Marisol RAMIREZ | FOKU

riek oxido nitroso gasa (N₂O) sortzen dute, 298ko beroketa faktorea duena. Bestetik, lurzoru erabilgarriaren %50 abeltzaintzak eta nekazaritzak hartzen dute jada, aurretik CO₂a xurgatzen zuten baso eta eremu naturalak suntsitzea eragiten duena.

Gainera, guztira kontsumitzen den ur gezaren ia hiru laurdenak laborantzak ureztatze-ko erabiltzen da, eta desagertzeko arriskuan dauden 28.000 espezieetatik, 24.000 nekazaritza eta abeltzaintza intentsiboa du mehatxu nagusia.

Dietaren bidez karbono-aztarna murrizteko jarraibideak:

1. DIETA BEGETARIANO EDO BEGANO

Haragi kcal bat ekoizteak landare jatorrikoak baino kalte handiagoa eragiten du. Dieta begano edo begetariano bat izateak 0,9 eta 0,6 tona CO₂ bal. aurreztu ditzake urte baten buruan, hurrenez hurren.

2. BEHI-HARAGI GUTXIAGO JATEA

Animalia jatorriko jakirik ez kontsumitzea gogorra izan daiteke batzuentzat. Oilo eta txerri haragia ekoizteak behi haragiak baino 4 eta 2,5 aldiz gutxiago berotegi-efektuko gas isurtzen ditu. Beraz, haragi gorri-rik ez jatea izan daiteke karbono-aztarna murrizteko pauso malguago bat. Aste-ahor- behin behi haragiaren orde- z oilaskoa kontsumitzeak urte- an 0,5 tona inguru CO₂ bal. aurreztu ditzake.

3. BERTOKO ETA SASOIKO PRODUKTUAK

Janaria munduko beste puntatik etxera garraiatzeak aztarna handia duela pentsa genezake. Hala ere, denboraldiz kanpoko produktu bat jatorrian era naturalean ekoiztea eraginkorra- goa izan daiteke hemen berogailuak erabiliz haztea baino. Horregatik, tokikoak ez ezik, produktuek sasoikoak izan behar dute karbono-aztarna era eraginkorrean murrizteko. Ur-

tean ia 0,6 tona CO₂ bal. ezabatzeko lor dezake era honetako elikagaiak lehenestek.

4. ERA ERAGINKORREAN KOZINATZEA

Jaki gehienetan ekoizpen fa- sea da kalte handien eragiten duena. Halere, produktuak ko- zinatze-ko orduan kontsumi- tutako energiak pisu nabar- mena izan dezake ere, arretaz jokatzeko ez bada. Presio-eltze- an kozinatzea, suen tamaina bereko tresnak erabiltzea, urak irakiten duenean poten- tzia jaistea, lapikoei tapa ipintzea edo izoztutako jakiak aurreko egunetik ateratzeak, esaterako, tona erdi CO₂ bal. aurreztu dezakete urtero.

ONDORIOAK

Azken finean, gure elikadurari lotutako karbono-aztarna mu- rritzeko erarik eraginkorre- na osasuntsu jatea da. Haragi go- rri gutxi eta denboraldi eta to- kiko produktu fresko asko di- tuen dietak dira 2030erako helburua lortzeko abiapuntua. Hortik aurrera, bakoitzak era- baki dezala noraino heldu nahi duen (alkoholik ez kon- sumitzeak ere 0,1 tona inguru aurrezten ditu).

Hurrengo astean etxeko energia kontsumoarekin zeri- kusia duten jarraibideak azter- tuko ditugu.

Datuak:
Egilea: Unai Garcia | Grunver
Sostenibilidad
Igorpenen murrizketari buruzko
kalkuluak: Diana Ivanova et. al.
(2020)
Janari ekoizpenaren aztarna:
Poore, J., & Nemecek, T. (2018)

Turismo eredua: bertakoak eta «giriak»

**Xabier Mikel
Errekondo**

Turismoa aberastasuna da agintarientzat eta, nola ez, euskal barne produktu gordinean gero eta pisu handiagoa izan dezan gogotik bultzatzen ari dira. Aurreikuspenek diote Euskal Autonomi Erkidegoan batez beste %3 eta % 4 artean igoko dela negozioaren bolumena eta Europan 2030ean joko duela goia, 1. 800 milioi turista hartzera iritsita. Hori covid-19 malapartatua agertu aurretik...

Krisiaren eraginpean, euskal politikari hainbat barregarri begitandu zaizkit erregutuz bertakooi turismoan zero kilometro politika aplikatu dezagun. Berta-

koak kanpoko bihurtu nahian antza, «giriak» geure lurraldean... Nortzuk eta kanpotik turistak masiboki etor daitezkeen politikak onartzen dituztenak, esan nahi da, era guztietako ostatuaren eskaintza biderkatuz bertakoei bizimodua eta etxebizitza aurkitzeko aukera zapuzten dieten horiek. Zertarako eta eredu masiboko ostalaritza-industria eutsi dezagun, haiek aberasten eta bertako herriarrak pobretzen jarraitzeko.

Euskal Turismoaren Plan Estrategikoa 2020 egitasmoak dio: «Munduko Turismo Erakundearen arabera, turismo-eredu iraunkorrak guztiz hartu behar ditu

aintzat egungo eta etorkizuneko eragin ekonomikoak, sozialak eta ingurumenaren gainekoak bisitarien, industriaren, inguruaren eta komunitate hartzaileen beharrianak asetzeko». Zentzuzko hitzak, gure politikariek babestutakoak, baina, interesak medio, nahieran prostituitutakoak, beste behin. Agian covid-19a ez da guztiz kaltetarako izanen, eraman gaitzala egungo turismo masiboaren politikak deseraikitza.

Arduradunei ardurak bete ditzaten exijitu behar zaie, are gehiago ongizatea jokoan denean. Ondoren, norberak har dezala bere turismo eredua... •

Kale antzerkia?

Joxean Agirre

Gehienok kale antzerkia zela pentsatu genuen, absurdoaren generoa edo obra surrealista bat, baina teilatutik «salbatu» nahi zuten katua eta suhiltzaileak benetakoak ziren. Bi kamioi ikusgarritan iritsi ziren, garabi bati esker bi suhiltzaile igo ziren teilatuta eta segurtasun arnesekin lotuta hasi ziren katuaren atzetik korrika.

Joan den igandea zen, Zumaian geundean igande goizetako bi orduko ibilaldia egin eta bigarren ardoa edaten (Amaren bat, dena esan behar bada) Ardantzabide tabernako terrazan. Errealitateak gutxitan hunkitzen nau baina honen errepresentazioak (antzerkiak esate baterako) oso azkar eta, antzeppen bat zelakoan, zutik jarri eta txalo batzuk jo nituen. Egia

da Luis Cañasen ardo horrek euforia puntu bat ere ematen didala. Gertakari errealtate baten aurrean geundela ohartu ginenean hasi ginen pentsatzen katu hori «salbatzeko» ez ote zen nahikoa udal langile bat eskailera luze batekin, teilatua hiru bat metroko altueran zegoelako.

Antzeppenak ordu laurden bat iraun zuen. Une batetik aurrera leihotatik behera salto egiten dutenen babeserako erabiltzen duten oihaltzakoak hartu zuten beste bi suhiltzailek eta harekin korrika hasi ziren katuari segika. Umetatik baserrian hamar metroko altueratik katuak salto egiten ikustera ohituta geundenontzat bitxia zen edo patetikoa ikuskizuna.

Nik ez nuen ezer katu horren kontra. Beharbada katu aristokratiko bat zen,

txapelketetan lehen postuetara ohitua edo arraza bereziren batekoa, Mahomaren Muezza haren oinordekoa agian. Baina urduri jartzen hasi zen eta halako batean kalera salto egin eta eskaileretan gora ziztu bizian desagertu zenean katu arrunt baten tankera hartu genion.

Gertakariak zer pentsatua eman zidan, animalismo gaizki ulertuaz, baliabide publikoen erabileraz, gizartearen infantilizazioaz eta abar luze batez. Asteazkenean kontzekotan gelditu nintzen, baina abuztuko beroak eta oporretako joan-etorriek ez didate utzi. Lagun bati komentatu nion neure begiekin ikusia eta ohikoa dela erantzun zidan, askotan ateratzen direla suhiltzaileak katuak salbatzera, eta horrek oraindik kezkatuago utzi ninduen. •



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Lurraren lurrina

Gauotako zeruaren iluna Pertseidek -eta apika tximistek ere- harra-mazkatu dutenerako, konturatu naiz astun xamar ibili naizela udan zeruari begiratzeko gonbita egiten.

Astroei begi bistaz, prismatiko edo teleskopioz begiratzea gero eta frikieria handiagoa dela iruditzen ari zait, askori nahikoa baitzaio -edota nahiago baitu- Googlek eskaintzen dion lehen argazkia begiratzea bere astronomia jakin-mina asetzeko. Are, “askoz hobeto ikusten da horrela!” entzun behar izango dut, errealtatea pantaila baten bidez hautematen dela onartu dugun garai ankerrotan... Aski da, bada! Pantailak fagozitatutako ikus-entzunak alboratu eta usaimenari lotuko natzaio gaur, dastamen eta ukimenarekin batera, halako “askatasun analogikoko” eremu batean kokatzen baita oraindik errealtatea hautemateko zentzumen hori.

Izan ere, uda usain bereziz jositako garaia da. Beroak lagunduta, lurrinak -eta kiratsak- biziago hedatzen dira airean, eta, gainera, ezohiko lurralde, klima eta jakiez inguratzeke egunak ere izan ohi dira egunok, gure sudurra-ri besta handia eskainiz. Izan liteke ere, oporrak herrira -*el pueblo*, alegia- itzultzeke baliatzea, eta halakoetan lurrinek haurtzarora eramateko gaitasuna ere izaten dute. Usainek memoria kutxak zabaltzeko giltza gisa funtzionatzen dute, eta, niri bederen, haurtzaroko bizipozak eta lasaitasunak hartzen dizkidate barrenak lurrin jakinek sudurra hartzen duten une berean. Udako lurrin gozo eta bereizgarrietako bat atzokoan igarri genuen, mahaiaren bueltan ginela, lurralde lehor hartan ekaitzak lehertu zuenean. Gutako baten azalpenei esker dakit orain lurrin hari “petrikor” deritzala.

Bai, lur bustiaren lurrinaz ari naiz, euriaren aurreko lehorraldia gero eta luzeagoa izan, orduan eta nabarmenagoa den lurrin gozo horretaz. “Petrikor” deitzen zaio, 1964an bi ikertzaile australiarrek horrela proposatu zutenetik. Izena jarri, eta 50 konposatuz osaturiko lurrin konplexu horren eragile nagusietako bat identifikatu zuten; lehorraldian hainbat landarek jariatzen duten olioia (zeinak, halaber, haziak ernaltzea ekiditen duen ikertzaileek frogatu zuten). Olio hori arroka buztintsuetan finkatu eta lehen euri tantek jotzen dutenean, aerosol gisa aireratzen da beste substantzia askorekin batera. Substantzia horietako bat da petrikorren bigarren eragile nagusia: geosmina. Grezieratik zehazki “lurraren lurrina” gisa itzultzen da *Streptomyces coelicolor* bakteria deskonposatzaileak hondakin gisa uzten duen konposatu alkoholiko lurrunkorra.

Giza sudurra, beste hainbeste animaliena bezala, oso sentikorra da geosminarekiko, logikoa denez, uraren xerka aritzeko balio baitu (bidenabar, horregatik egiten zaigu hain atseginna). Gameluek, adibidez, kilometrotara sumatzen ahal dute geosmina, oasietarako bidea erraztuz. Azkenik, distantzia luzeetara igartzen den lurrin bat ozonoarena dugu, jarduera elektrikoak bideratuta, “usaina eraman” egiten baitu bere jatorri greziarrak adierazten duenez, garbitasun usain bereizgarri horrekin ekaitza lehertzeaz dela adieraziz.

Petrikorra ezin da laborategian sintetizatu eta, esan bezala, Whatsapp bidez ere ezin zaigu sudurreratu.

Naturaz inguratu, begiak itxi eta musuzapia istant batez kentzea besterik ez dugu behar lurraren lurrinez gozatzeko. Ez dadila hori ere frikieria bat bihurtu! •



Ur tantek lurra jotzean lurrinez beteriko aerosolak sortzen dira.

{ koaderno } Joana Garmendia

Kendu maskarak

Azkenaldian noiznahi eta nonahi entzuten dugu *fake news* edo faltsututako berriei buruz hau eta bestea. Ez dira, edo ez soilik, berri faltsuak, edo gezurrezko notiziak. Hartzailea desinformatzea helburu duten berriak dira, informazio ez erabat zuzena zabaltzen dutenak, sare sozialen eta teknologia berrien bitartez, nagusiki. Batzuetan, ondo orkestraturiko plan baten parte dira –klima aldaketari garrantzia kentzeko edo gizartea immigrazioaren aurrean izutze-ko egin direnak, adibidez–. Ez dira zabarkeriaz okerturiko berriak, alegia datuak ondo ez biltzeagatik edo informazioa trakets eskuratzeagatik faltsuak. Bestelakoak dira. Desinformatzeko zabalduko informazioa da.

Gisa horretako berriek bazka erraza aurkitu dute pandemia garaian. Azken hilabeteetako egoera erabat berria da gure herrialde-entzat. Gerrak urruti entzuten ditugu, goseak beste batzuei jotzen die, leku exotikoetakoak dira tsunami-lurrikara-tornadoak. Arriskuak beti iritsi zaizkigu sorgortuta, urrutiko lekuren batean talka egin ostean datozkigun oihartzun makalduen gisan. Orain arte. Birusa etxe atarira eta leungarririk gabe etorri zaigu. Eta beldurra da informazio faltsuentzat ongarririk eraginkorrena.

Beste elementu batzuk ere batu zaizkio beldurrari, *fake* diren berri horiei bidea errazteko. Horien artean bat garrantzitsua diskurtso fidagarri baten falta izan dela esango nuke. Guretzat berria bada egoera, sistema kudeatu behar duenarentzat ere halaxe izan da. Eta baldar ari dira. Etxean geratzeko, baina lanera joateko. Maskarak janzteko eta erantzeko; baina, badaezpada, gabe ez ibiltzeko. Gure herrietan turista izateko; baina hondartzarik, tabernarik, kontzerturik ez zapaltzeko. Gure axolagabekeriagatik berehala omen gara denok berriro etxean itxita, baina irailaren hasieran haur guztiak eskolara bidaltzeko.

Beldurra geneukan eta nahastuta gaude. Ez gaude, ordea, gerran, ez gaitu inongo tsunamik jo, eta, zenbaitzuen berrogeialdiak ikusita, ez diogu zertan beldurrik izan hurbileko goseteren bati. Gure gizartea irauli duena birus bat da, eta zientzia-ikerketak argituko du birus hori zertan den eta nola indargabetu daitekeen. Horren zalantzarik ez da. Non, nork eta noiz argituko duen, hori da zalantza bakarra. Eta zientziak, kasu hauetan, ez du nahi genukeena adinako erritmo bizirik. Idazle batek argitara dezake pandemiari buruzko liburua itxialdiaren bigarren astean, horrelaxe, hausnartu beharreko guztiak goizetik gauera hausnartuta. Horixe abilidadea. Ikerketa zientifikoan ezin da magiarik egin.

Beldurtuta gaude, nahastu gaituzte, eta hau guztia konponduko duenak pazientzia eskatzen digu. Bien bi-

Beldurtuta gaude, nahastu gaituzte, eta hau guztia konponduko duenak pazientzia eskatzen digu. Bitartean, gure pantailetan, «fake»-ak dabilta lasai ederrean

tartean, gure pantailetan, *fake*-ak dabilta lasai ederrean; eskatu gabe ere hortxe jasotzen ditugu, saldoan, mundu mailako konspirazioen teoriak, maskaren aurkako argudio zentzugabeak, ardi otzanen gisara marrazten gaituzten trufa burlatiak. Eta, bai, beldurtuta eta nahastuta gaude, baina, halere, harrituta nauka ikusteak zein erraz sinetsi diren *fake* horietako asko eta asko.

Bineta bat jaso nuen atzo pantailaren batean: lagun batek besteari ohartarazten dio ez sinesteko irakurri berri duena, *fake* dela. Besteak, begiak arranpalo, zera erantzuten dio: nola izango da ba *fake*, nik entzun nahi dudana huraxe esaten badu?

Azken finean, maskarak gogaikarriak dira, aspertuta gaude etxean egoteaz, uda da eta ez dugu oporrik gabe geratu nahi. Hortik ere bada zerbait. •

«Publiko aurrean pizten zaidana da gehien faltan sumatzen dudana»

Erratzun bizi da, lasai, «aspertuta». Azken bizpahiru urteetan ezer ez zaiola gertatzen sentitzen omen du. Duela zazpi urte utzi zuen bertsogintzaren jira, akaso «gauza gehiegi» gertatzen zitzaizkiolako. Azken plazaren detaileak ez ditu zehatz jasoak, baina buruan dauka eszena. «Oroitzen naiz lekuaz, Bizkaiko herri bat zen, gogoratzen dut norekin kantatu nuen... Azken agurra kantatzera joan nintzen mikrofonora, baina ez nuen azken agurrik bota. Oroitzen naiz taxian joan nintzela eta joatea bakarrik bertso saioagatik irabazi nuena baino gehiago kostatu zitzaidala. Eta gero bueltatu egin behar, noski...». Gau hartan, «saio askotan bezala», dirurik ez zuen irabazi.

Utzi egin zuen. Baina, azken urteotan, bertsogintza besterik ez omen dauka buruan. Une oro berriz bueltatzea zer izango litzatekeen pentsatzen egon beharrean, bueltatzea erabaki du.

Zergatik utzi zenuen bertsogintza?

Uste dut bi arrazoi nagusi izan zirela. Batetik, uste dut, bertsolaria baino gehiago, ezaguna bihurtu nintzela. Ez ziren portzionalak inondik inora nire saioetara etortzen zen jende kopurua eta hortik kanpo nik egiten nuen edozer gauzak hartzen zuen oihartzuna. Bestetik, hamabost urte nituela hasi nintzen bertsotan eta ez nuen beste deus egina. Sentitzen nuen eskubidea nuela aukeratzeko zer egin nahi nuen. Umea nintzela hartutako erabaki baten mende bizi beha-

rrean, aukeratzeko eskubidea nuela sentitzen nuen.

Pertsonaia handiegia bihurtu zen pertsonarentzat.

Nik desberdin ikusten ditut Silveiraren kontua eta nire bizitza. Bertsolaritzan eman nituen azken urteetan nagusiki, etengabe Silveiraren paper horretan bizi beharra sentitzen nuen eta horrek dezente nekatu ninduen.

Azkenekoz hitz egin genuenean esan zenidan egunero tximiniako sua piztu eta zaintzen zenuela, eta hori zela ordura arte zure bizitzan izandako dizi-plina edo errutina zorrotzena. Eta, orain?

Erratzun bizitzen jarraitzen dut, baina orain baserrian. Egunero sua piztu eta zaintzearena erabat barneratuta daukat. Hortik aurrera, beste dizi-plina edo errutina batzuk betetzea zailagoa da. Naturari lasaitasunez erreparatuta konturatzen naiz zenbat gauza uzten ditugun ikasteke eta bizitzeke gauza batera bakarrik gaudenean. Ez naiz eta ez naiz izango tipo dizi-plinatu eta ordenatua, baina badakit gauza batzuk ahalegina eta sakrifizioa eskatzen dutela. Hortik aurrera, zuk aukeratzeko duzu gauza horiek egin nahi dituzun edo ez.

Baserrian eta baratzean irudikatu behar zaitugu orduan...

Nahi duenak baratzean irudika nazake, baina, komikietan bezala, hodei batean nire pentsamendua irudikatu behar du. Eta, hor, publikoa ikusten dut bertsoaren zain. Hori da gertatu zaidana. Beste gauza batzuk deskubritu ditudan

neurrian, konturatu naiz benetan egin nahi dudana bertsotan egitea dela.

Testuingurua aldatu arren, zeure buruan bertsoak jarraitzen du. Utzi zenuen toki berean?

Ez toki berean, gehiago hamabost urte nituenean eta bertsotan hasi nintzenean zegoen tokian, orduko uste eta nahi berdintsuekin; funtzio bat izatearen nahia, hitzak ematen dizkigun aukerak baliatzeko nahia, jendeari pentsaraztea edo “despentsaraztea”... Horren hutsunea sumatzen dut. Badira bizpahiru urte sentitzen dudala ez zaidala gertatzen ezer, ez zaidalako gertatzen aipatu dizudan hori.

Plaza astintzeko gogoa sumatzen dizut.

Bai, horrela esan daiteke.

Jendaurreko bertigo gozagarri hori, oholtzan zure ahotsa entzunaraztea... Lehen oso gustuko zenuen eta pentsatzekoa da horren falta duzula.

Bai. Egoera horietan, aldatu egiten da arrazoitzeko modua, izaera, ideiak osatzeko modua... Faltan sumatzen dut egoera horretan nagoenean nire buruak funtzionatzeko duen manera. Bizpahiru saio egin nituen ekaina bukaeran eta uztaila hasieran eta sentsazio horiek izan ditut berriz. Astero geratzen naiz hemen, bertso eskolan, bertsotan egiteko, baina oso-oso desberdina da. Bertsolari bera oso desberdina da publiko aurrean edo bere intimitatean.

Publiko aurrean pizten zaidana da gehien faltan sumatzen dudana.

XABIER SILVEIRA ETXEBERRIA

BERTSOLARIA

Duela zazpi urte utzi zuen plaza, benetan zer egin nahi zuen sentitu beharra zuelako. Duela bizpahiru urte plaza besterik ez omen dauka buruan eta bueltatzea zer izango litzatekeen pentsatzen jarraitzea baino osasungarriagoa iruditu zaio bueltatzea.

Amagoia Mujika Telleria



Argazkiak: Jagoba MANTEROLA | FOKU

Dagoeneko hasia zara beraz plazan.

Urtarrilean egin nuen saioaren amaieran hasia zen. Baina itxialdia etorri zen eta dena bertan behera geratu zen. Ekainaren 26an hasi nintzen.

Konspirazio hipotesietan beste bat hori orduan: Xabier Silveirak plazara bueltatu behar zuen eta eragotzi beharra zegoen.

[kar-kar-kar] Izan ahal da, hainbeste txorakeria entzun ditugu... Pentsa, birus bat dela ere esan dute!

Egia da Xabier Silveira ohol-tzan dagoenean normalean gauzak gertatzen direla.

Bai, baina ohol-tza azpian na-goenean ere bai. Baina ohol-

«Sentitzen nuen eskubidea nuela aukeratzeko zer egin nahi nuen. Umea nintzela hartutako erabaki baten mende bizi beharrean, aukeratzeko eskubidea nuela sentitzen nuen»



tza gainean gertatzen direnean badirudi denoi gertatu zaizkigula, komunitatean, eta ez niri bakarrik.

Nola sentitu zara berri-z jendaurrean bertsotan?

Ongi. Hainbeste denbora bertsotan egin gabe zaude-nean, gauza txiki pila bat ahaztu egiten dira. Inoiz ez zitzaidan pasatu bertsotan ari naizela beste gauza batzuetan pentsatzen hasia; adibidez, zurekin kantuan ari denak zergatik ez ote duen topatzen lan bat eta plazako “marroia” utzi... Horrelako gauzak pasatu zaizkit burutik, lehen inoiz pasatzen ez zitzaidana. Baina pentsatzen dut normala dela, buruak ematen dituen bueltak direla. Baina, gai-

nontzean, banekien gutxi gorabehera zer sentituko nuen eta horrela izan da.

Gaur egungo munduan ezin da erre eta horrek kezkatzen ninduen. Asko erretzen jarraitzen dut, baina izan ditudan saioetan ez zait batere kostatu ez erretzea. Harrituta nago. Pozik nago horregatik, beldur pixka bat ematen zidalako.

Horretan Andoni Egañaren antza duzu.

Baina nik nahiko nuke Egañaren antza izan beste gauza batzuetan. Miresten dut, bertsolari bezala sekulakoa iruditzen zait. Pixka bat ezagutzeko zortea izan dut eta egunero irakurtzen dut bere iritzi zutabea. Izugarria iruditzen zait arlo guztietan.

Bertsotan egitea zer da, bizikletan ibiltzea bezala? Ez da ahazten?

Bertsotan egitea ez da ahazten, baina noiz frenatu behar den, noiz askatu behar diren frenoak, zein abiada den egokiena, zein den bide onena... Hori guztia pixka bat ahazten da edo, gutxienez, zalantza eta konfiantza gutxiarekin hartzen dira erabaki horiek. Baina bertsotan egitea ez da ahazten.

Nola bueltatzen da bat plaza-ra? Zein ate jo behar dira?

Galdera horixe egiten nion nik nire buruari. Elizondon egin-dako saio batean bueltatu nintzen. Hori zen lehen pausoa. Gero, gerokoak, inguruko saioetan parte hartu eta plazan irabazi plazarako buelta. Baina gauzak nola diren, tartean

EITBko “Gure kasa” programatik deitu zidaten, “Aspaldiko” izeneko tartean parte hartzeko. Arraroa iruditu zitzaidan, dagoeneko ez naiz sentitzen albiste. Justu aipatu nien plazara bueltatzeko asmoa nuela eta horixe aipatu nuen telebisita saioan. Bide motzena hori zela iruditu zitzaidan. Horrela jakin zuen jendeak plazara bueltatu nahi nuela. Kasualitatea aipatuko nuke, baina ez dut kasualitateetan sinisten. Lehen ere askotan gertatzen zitzaidan, nik nahi gabe gauzak parean gertatzen zitzaizkidan. Eta, orain, horrelaxe gertatu da.

Eta justu plazara bueltatzea erabaki duzu ezohiko uda honetan, inoiz baino plaza gutxiago daudenean.

Bai, horrela gertatu da. Bertso eskolan, Erratzun, hirukotea elkartzen gara; Alazne Untxalo, Aitor Larreta eta hirurok. Aurtengoa ez da uda normala eta oso saio gutxi daude. Bere egunean Jokin Uranga eta Fredi Paiarekin egin genuen “Zaharrak berri xou” haren antzeko zerbait prestatzen ari gara bertso eskolan. Formatu itxiko saio batzuk egitea da asmoa, plazak egin ahal izateko. Elkarrekin, udaletxeek eta erakundeek apenas daukaten gaitasunik ezer antolatzeke. Gu saioak egin ahal izateko modubatu prestatzen ari gara.

Utzi zenuena eta oraingoa plaza desberdinak dira?

Duela zazpi urteko plaza eta oraingoa desberdinak dira. Lantzen diren gaiak desberdinak dira eta gero eta zailagoa da belaunaldi desberdinak ikustea oholatza berean. Oso esanguratsua da Gipuzkoan eta Bizkaian 25 urtetik beherrako zenbat bertsolari dauden



ikustea eta haien izenak ez jakitea ere. Estilo eta bertsokera bereko bertsolari mordoa dago eta apenas dagoen kontrako ahotsik. Nire ustez gaur egungo planteamenduak eta gaiak ez datoz bat bizi dugun garaiarekin eta eraman beharko genukeen garapenarekin.

Euskal gatazkari apenas kantatzen zaio.

Kalean bukatu delako. Gatazkari presoak geratzen zaizkio. Apenas kantatzen da horri buruz eta hori bezala beste gauza asko daude, gai sozialak adibidez. Bertso saioak kultur zikloak betetzeko antolatzen diren neurrian, gero eta grisoak dira, ez zuri eta ez beltz. Politak dira. Eta saio bat hornidura izateko bideratzea ez da zaila, horretarako daude gai jartzaileak.

Marra gorriak gero eta nabarmenagoak dira bertsolaritzan, sare sozialen garai honetan. Ez dakit horrek beldurrik ematen ote dizun...

Pentsatzen dut beldur pixka bat ematen didala, duela aste-bete inguru Facebookeko kontua itxi nuelako. Sareak erabiltzen baldin badituzu, hor gertatzen dena errealitate bihurtu daiteke. Ez badituzu erabiltzen, ez baduzu irakurtzen zuri buruz sareetan esaten dena, desagertu egiten dira. Urte hauetan erabili ditut, pentsatuz iritzia zabaltzeko plataforma izan zitezkeela. Hemen Erratzun erabat bakar-tuta nago eta pentsatzen nuen sareei esker gertatzen denaren berri izango nuela. Aspaldi samar konturatu nintzen hori ez zela gertatzen ari, ez direlako horretarako tresna. Baina lotu egiten zaituzte-

nez, kostatu egiten da sare sozialetatik askatzea. Gainera, zerbait galduko duzun beldur horregatik begiratzen eta begiratzen jarraitzen duzu, inoiz gertatuko ez den horren zain. Facebook, Twitter, Instagram... oso errima politikak dira eta bertsoak betetzeko ederki daude, baina agian bada ordua esaten hasteko guztiok gure kontuak itxi eta desagerrarazi egin beharko genituzkeela, denok dakigulako zertarako diren.

Ez zaitut irudikatzen postu-reoko argazkiak Instagramen zintzilikatzen.

«Bertso saioak kultur zikloak betetzeko antolatzen diren neurrian, gero eta grisagoak dira, ez zuri eta ez beltz. Politikak dira»

Gaur egun gazteak hor bizi dira, baina kalera atera eta ez dutelako aukera hoberik topatzen. Baina badaude aukerak jendea zuri begira jartzeko eta ez zure argazkiari begira. Gustatzen zaizuna jendeak zuri begiratzea bada, plazera kalean dago, eta ez argazkian.

Azkenaldian sare sozialen bitartez iritsi zaizkigu Maradonaren bideo zelebreak. Beti zurekin gogoratzen naiz Maradona ikustean. 2008an kaleratu zenuen «Maradona, barrilete kosmikoa» liburua. Futbolaria ere asko mi-resten duzu.

[kar-kar-kar] Nik oraindik ez dut bere bide guztia egin, azken hilabeteetan agertzen diren bideotan porru eginda dago eta. Uste dut nik oraindik beste buelta bat egin dezake-dala.

Duela egun gutxi ikusi nuen berriro ere berari buruzko lau kapitulutako dokumental bikain bat. Nik neuk behintzat ez dut aldatuko Maradonari buruz dudan iritzia Antena3 edota Tele5 telebista kateek erakusten dizkidaten minutu bateko bideoak tarteko. Irudi horiek ez ditu grabatu Maradonari lagundu nahi dion norbaitek eta bakoitzak bere etxe-

an nahi duena egiten du. Telebistak zein behar dauka guri erakusteko Maradona oso gaizki dagoela? Pentsatzen genuena despentsatzea nahi dute eta nik ez dut amore eman-go horretan.

Plazetan ikusiko zaitugu. Akaso txapelketan?

Helbururik ez daukat. 2021ean izango da Nafarroakoa eta ez dut parte hartuko eta, ondorioz, ezta hurrengo Euskal Herrikoan ere. Baina presarik ez daukadanez, uste dut berriz aterako naizela txapelketan. Desafioekin beste saiakera bat egingo dut.





Maitena Usabiaga Sarasua
Sexologoa eta psikologoa

Orgasmoez

Egutegia hartu eta egun guztiek dute ospatzeko konturen bat; santuak direla, hizkuntza, festak, haurrak, emakumeak, jaiotzak, heriotzak... **baita orgasmoak ere.** Abuztuaren 8an, orgasmo femeninoaren eguna ospatzen da, 2007az geroztik hala izendatu dute Hego Amerika eta munduko beste lurralde batzuek. Orgasmoak... harreman erotikoen sumuna, puntu gorena, klimaxa, eztanda. Harreman erotikoen helburua? Plazeraren maila handiena?

Azken urteetan gehiago entzuten da aludunen orgasmoen inguruan; klitoria izendatzen da, eiakulazioaz hitz egin, guk ere prostata badugula, orgasmo maskulino eta femeninoen arteko arrakalaz, Satisfayer-az... Izendatzen den guztia, existitzen da. Horrek ez du esanahi izendatzen ez dena existitzen ez denik. Existitu eta gertatzen da, ez gara orgasmoak dituzten lehenak, baina guk nola bizi dugun une hori eta orain dela 50 urteko batek... aldea dago. Ohikoena da izendatzen ez den hori moralki zikina izatea, txarra, beldurgarria, gaizki ikusia. Badakigu aludunen plazera hala ikusita egon dela historian zehar, ez genuen baime nik goatzeko, geure burua ezagutzeko, plazeretara jo lasteko. Hedonismoak eta emakumeak ez dute harreman erraza izan, beste esparru askotan bezala. Hobe emakumeak eginbeharretara lotuta egotea eta ez gorputzen arteko kitziketara.

Hitz egitea izugarritzko pausoa izan da eta nondik hitz egiten den ere badu bere pisua. Zein parametrotatik ari gara hitz egiten? Askotan iruditzen zait parametro maskulinoetatik abiatzen garela, ez ditugula sustraiak aldatzen, moldatu egiten garela. Denborak eta maiztasunak garrantzia izaten jarraitzen dute, zenbat eta orgasmo gehiago izan hobe izango balitz bezala. Hala da? Zailantzak ditut. Orgasmoak izatea bihurtzen bada helburu bakar eta nagusia, zer gertatzen da lortzen ez badut? Ez dut plazerik izan? Nire maitalearekin izan dudana topaketa



Harreman erotikoen helburua? Plazeraren maila handiena?

ez da ona izan? Gorputz guztien aniztasuna ahazten dugu, genitaletan jartzen dugu atentzio osoa, betebeharrak handitzen ditugu eta badakigu erotika eta betebeharrak ez direla ondo konpontzen. Honek ez du esan nahi orgasmoak izatea ez denik une garrantzitsua, baina garrantzitsuena orgasmoak izatea dela esatea, beste gai bat da.

Helburu zehatzak eta orokorrak izateak baditu bere arriskuak. Helburuak aldatzea agian baliagarriagoa izan daiteke. Noiz hasi eta amaitzen da plazeren jolasa? Orgasmora iristen garenean? Eiakulazio bat izaten dugunean? Parametro hauek min handia egin dute gorputzetan, frustrazio asko sortzen baitute. Alde batetik, gorputz jakin batzuk hartzen dituelako kontuan eta beste batzuk ez; bestetik, gorputzeko atal batak hartzen duelako garrantzi handiena (genitalek), beste guztiak gutxietsiz, muga jakin bat dutelako topaketa guztiek, gaitasunak jartzen dira jokoan; orgasmoak izateko gaitasuna.

Eta sentitzen dut, baina mundu guztiak ez ditu orgasmoak izaten eta, agian, batzuek ez dute izan nahi ere. Denetik dagoelako eta bakoitzak bere modu bakar eta errepikaezinean bizi dugulako garen hau. Agian jolastea da helburua, elkar topatzea, geure buruarekin eta bestearekin disfrutatzea, gorputzak eskaintzen dizkigun sentazioak bizitzea. Ez da helburu makala, ezta? •



BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



BILDUMA PARTIKULARRA

URRAULGOITIKO EGURKETA

Zenbait egurgile ageri diren argazki hau joan den mendeko 60ko hamarkadan Larekin egindakoa da, Urraulgoiti ibarrean (Adoain, Aietxu, Elkoatz, Eparotz, Ezkanitz, Gindano, Imirizaldu, Irurozki, Lareki, Ongotz, Ozkoidi eta Zabaltza), Zangozako merindadean. Egilea ezezaguna da, eta, seguru asko, argazkilari amateurra izango zen, negatiboaren formatua Kodak konpainiak 1963an Instamatic kameretan sartu zuenari baitagokio. Irudi hori, beste objektu batzuekin batera, ibar horretako Lareki herriko baserri bateko ganbaran gordeta egon da. Elkoazko egurgileek esaten zutenenez, zuhaitz horiek ilgoran moztu beharra zegoen, zurak gutxiago pisatzen baitu eta pinuen kasuan hobeto erretzen baita, ez duelako erretxinarik botatzen; ilbeheran moztuz gero, zura ilundu eta ez da arintzen, eta lehortzean pitzatu egiten da. Luis Pedro Peña Santiagok eta Juan San Martinek 1966an jasotako zenbait lekukotasunen arabera, ibarreko herri batzuetan, hala nola Adoainen, enborrak mandoekin arrastatuz garraiatzen zituzten, Zaraitzu ibaiaren ertzerantz iritsi arte. Han, almadia muntatzen zituzten. Beste herri batzuetan, Ezkanitzen, esaterako, Aldaxur errekaraino arrastatzen zituzten lehenik, eta, Aretara iristen zirenean, gurdiz eramaten zituzten.

GAUR8

ireki gure leihua

